

*Dolarra jaitsi egin da  
yenarekiko eta  
euroarekiko.*



# '-ekiko' okerrak eta zalantzazkoak

Oker erabiltzen da '-ekiko' atzizki konposatua, zenbaitetan. Halakoetan, tradizioz, bestelako itzuli jatorrak eta zehatzak erabili izan dira.

Aurreko esaldia, esate baterako, hobeto dago honela:



*Dolarra jaitsi egin da  
yenarekin eta  
euroarekin alderatuta.*



# '-ekiko' okerrak eta zalantzazkoak

Hona erabilera oker batzuk, adizlagun gisa:

- *Eusko Jaurlaritzaren neurriak **arrantzarekiko**...*
- *Lasterketan, ausart eraso, eta minutu erdia atera zuen zaharrak **gaztearekiko**.*
- *Gure alderdiak aspaldi plazaratu zuen bere iritzia **gai horrekiko**.*



## Txukunago, honela:

- *Eusko Jaurlaritzak arrantza dela-eta hartutako neurriak...*
- *Lasterketan, ausart eraso, eta minutu erdia kendu zion zaharrak gazteari.*
- *Gure alderdiak aspaldi plazaratu zuen bere iritzia gai horri buruz.*



# '-ekiko' okerrak eta zalantzazkoak

Hona erabilera zalantzazko batzuk,  
adizlagun gisa:

- *Errespetu handia du zurekiko.*
- *Haren maitasuna hizkuntzarekiko.*



*errespetu, begirune, estimu,  
gorroto, maitasun...*

Sentimenduak eta gogo-aldarteak adierazten dituzten hitz horiek beste itzuli batzuk eskatzen dituzte, hala nola:

- *-gana*
- *-i buruz*
- *-en aldera(t) (Ipar.)*



Lehengo adibideak, beraz, hobeto daude honela:

- *Errespetu handia du zuregana(ko) / zure aldera/ Errespetua dizu / ...*
- *Bere hizkuntzarenganako maitasuna / bere hizkuntzari dion maitasuna / ...*





# '-ekiko' okerrak eta zalantzazkoak

Erabilera hauek ere zalantzazkoak dira, izenlagun gisa:

- *Espazio itxi*ekiko beldurra.
- *Elkarre*ekiko maitasuna.
- *Elkarre*ekiko konfiantza.



Jatorrak eta oso erabiliak dira, berriz,  
honako hauek:

- *Espazio itxiei dien beldurra.*
- *Elkarrenganako maitasuna.*
- *Elkarrenganako konfiantza.*

